

NEIKER-NEKAZAL IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, S.A.

Sozietatearen izena

NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A.

IFK

A48167902

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1984ko azaroan eratu zen, Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Iraskundea, AB (AZTI, A.B.) izena zuela, eta Foru Aldundiaren urriaren 9ko 69/84 FORU DEKRETUAK baimenduta (BAO, 286/1984 zk.a, 1984ko abenduaren 14koa), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mende egon zen, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bereganatu arte 1988ko ekainaren 3an; eta honetan oinarrituta [132/1988 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, AZTI, A.B. Sozietatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erosteko baimenari buruzkoa.](#)

Sozietatearen izen-aldaketa 1998ko ekainaren 30ean egindako Akziodunen Batzar Nagusiak erabakita gauzatu zen, zegokion eskritura publikoa 1999ko urtarrilaren 20an egin zen, eta 1999ko otsailaren 16an inskribatu zen Bizkaiko Merkataritza Erregistroan.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

7211 Ikerketa eta garapen esperimentalak bioteknologian.

Helburu soziala

Sozietatearen helburua akziodunek 1997ko maiatzaren 27an egindako Aparteko Batzar Nagusian erabakita aldatu zen, [124/1997 DEKRETUA, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak AZTI, A.B. Sozietatea erosteko baimenari buruzko Dekretua aldatzen duena](#) oinarri hartuta. Honako hau da:

1. Ondoren aipatzen diren arloei buruzko ikerketa- eta azterketa-lanak egitea: nekazaritza-, ur-, ingurugiro- arloko zientziei buruzkoak eta, oro har, baliabide naturalei buruzkoak, nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-mailako teknologiak alde batera utzi gabe noski.
2. Administrazio publikoei eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreetako enpresei, ustiatzei eta industriei aholku teknikoak ematea.
3. Nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreetako teknika eta teknologia berriez profesionalak jabetzeko eta haiek aplikatzeko bide emango duten eta profesional mailakoak diren hezkuntza-, gaikuntza- eta espezializazio-prozesuak finkatzea.

4. Kalitatearen kontrol-, segimendu- eta ebaluazio-jardunak garatzea eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-produktuak egite-, eraldatze- eta komertzializatzeko jardunetako arauak eta baldintza teknikoak betetzen diren ala ez zaintzea.

5. Nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-produktuak sustatzeko eta haien publizitatea egiteko jardunak garatzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak

Kapital soziala

4.157.056 €

Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: %100

Administrazio Kontseilua

Sozietatearen kudeaketa eta administrazioa Administrazio Kontseiluari dagozkio; organo hori kide anitzekoa da, sozietatea ordezkatzeko, eta eskumen guztiak dauzka. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Bittor Oroz Izagirre jauna presidentea.

Unai Ibarzabal Goikoetxea jauna

Salvador Gorostola Arrieta jauna

Eduardo Aguinaco López de Suso jauna

Peli Manterola Arteta jauna

Iñaki Aldekoarai Labaka jauna

Jaime José Domínguez-Macaya Larnaga jauna

Federico Saiz jauna

José Luis Fresno Santamaría jauna

Imanol Barrena jauna

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: %100

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	11.455.355 €
Ondare garbia	4.926.466 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	1.370.120 €
Batez besteko langile-kopurua	171

Sozietatearen helbidea eta Web gunea

Zamudioko parke teknologikoa, 812. partzela. Berreaga kalea, 1. E-48160. Derio (Bizkaia)

www.neiker.eus